

Zillarezko Gehitu 1999

JOSÉ ÁNGEL CUERDA, Gasteizko alkate ohiari, izatezko bikoteen udal erregistroak sortzeko bidean aitzindari izan zelako eta, halaber, bere agintaldian gay eta lesbianen eskubideen defentsan bai eta orientazio sexualagatiko bereizketaren aurkako ekimenei laguntza emateko orduan beti prest egon delako.

1999ko Latorrizko Gehitu

DIPUTATUEN KONGRESUARI, Coalicion Canaria taldeak aurkeztutako izatezko bikoteen lege proposamena, zeina 1997ko apirilaren 4an Ganbarako Mahaiak tramitera onartu baitzuen, gerarazita edukitzeagatik izapidaketari dagokionean. Saria Ganbarako gehiengoari eman nahi zaio nagusiki. Gehiengo honek, filibusterismo parlamentario arbuiagarrienetakotzat har daitezkeen taktika atzeratzaile eta oztopatzaileak erabiliz, lege proposamenaren izapidaketa legealdi honetan bukatzea ekidin nahi du, horrela proposamenak bertan behera egin dezan. Frantzian, Katalunian eta Aragoan izatezko bikoteen legeak onartu diren momentu honetan bereziki lotsagarria eta grabea da talde integristenek Diputatuen Kongresuari aipatu legearen eztabaida ukatu nahi izatea, milaka bikoteek jasaten duten lege babes eza eta bereizketa nabariari konponbidea, nahiz eta partziala izan, eman nahi dion legearena hain zuzen ere.